

MALLABIA, ERMUA BIZIRIK NAHI DITUGU. POR NUESTRO FUTURO, DIGNIDAD Y DERECHOS.

Dokumentu hau sinatzen dugun Enpresa komite, eragile social eta kolektiboek bizi dugun krisi egoerak suposatzen diguna gogor kritikatzeko dugu.

Krisiak ekarri diguna bazterketa soziala, inposaketa eta pobrezia da, eta gainera, orain arte ere kaltetuenak izan direnean: gazteria, langabetuak, jubilatuak, langileak...

Mobilizatzeko garaia da, herrian bizi dugun egoera larriaz kontziente izan behar dugu guztiok, ezin gara beste alde batera begira egon.

Herrian ditugun gatazka ezberdinei aurre egiteko indarrak batzeko garaia da eta argi esango dugu: ez dugu kaleratze bat bera ere gehiago onartuko, ezta etxe desjabetzerik ere, ez dugu inolako mehatxurik onartuko, enpresa bat ixtea, inposaketak, komertzioak ixtea... hau guztia gelditu behar dugu.

Krisia ez da gure erruz, urte luzetan poltsikoak bete dituzten horiek, sortu dute krisia, lapurtu egin digute eta lapurtzen jarraitzen dute, lotsarik gabe eta lasaitasun osoz gainera. Eta egoera guk ordaintzea nahi dute.

Gertatzen ari denak guztioei eragiten digu:

- **LANGILEAK.** Lan Erreformak, EEEdak, soldata jeitsierak, lan-orduen luzapena, enpresen itxiera, hartzekodunen legea... Bizi dugun eraso bortitza da, gelditu beharra dugu!
- **LANGABEZIA.** Ermuan eta Mallabian, azken 7 urteetan langabetu kopurua hirukoiztu egin da. Langabetuentzako diru-laguntzak kendu edo murriztu dituzte. Gazteen langabezia tasa izugarri igo da, eta gazteek etorkizuna oso beltz ikusten dute. Posible al da, gaur egun, lanpostu duin bat lortzea? Enpleguaren suntsitzea %75 zatia, 30 urtetik beherako langileei eragin du. Gazteetan langabeziaren tasa %40an dago. Krisi honetan galtzaile handiena, duda barik, gazteak dira.
- **ETXEBIZITZA.** Etxe desjabetzak gertatzen ari dira, eta gainera zurea ez den horregatik ordaintzea behartzen zaituzte. Eta ez da ezer gertatzen, nahiz eta zure buruaz beste egin, ez da ezer gertatzen. Etxebizitza política, Hipoteka lege berri bat behar dugu eta alokatzeko etxebizitzak sozialak baina ez baldintzak zorrotzekin.
- **PENTSIOAK.** Jubilazio duinerako trabak jartzen dizkigute: jubilazio adina, kotizazioak, pentsioaren igoera IPCaren azpitik... Jubilazio duina nahi badugu, guk geuk ORDAINTZEA nahi dute!
- **HEZKUNTZA.** Ikastea gero eta garestiagoa da, eta luzeagoa gainera. LOMCE inposatu nahi digute, hezkuntza pribatu eta zentralizatua. Orain 40 urteko hezkuntza sistema ezarri nahi dute, aberatsentzako hezkuntza hain zuzen.
- **OSASUNA.** Repagoa, itxaron zerrenda amaigabeak, herriko osasun zentroko lehiatiletan ilara luzeak, osasungintzako langileak ordu askotako txandak... Osasun Zerbitzu pribatua inposatu nahi dute, gaixotzen bazara, ORDAINDU ezazu!
- **GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDITASUN POLITIKAK.** Menpekotasunaren Legearen garapena etenda geratu da, eta aurrekontuak murriztu dira berditasun politiken arloan. Arlo honetan lortu dugunaren inguruan ezin daiteke atzerapausorik onartu. Nahitaezkoa da bizitza laboral eta pertsonala bateragarria egiteko politikak diseinatzeko jarraitzea, lan produktibo zein erreproduktiboaren errepartoan aurrera eginez. Menpekotasuna duten pertsona guztiak babestuko dituen zerbitzu publiko eta unibertsalak eskatzen jarraitu behar dugu.
- **INSTITUZIOAK.** Urte luzetan, eta inongo kontrolik gabe, dirua xahatu ostean, aurrekontuak murriztu dituzte eta ongizatea zuzenean erasotu. Gainera, patronalaren lana txalotuz eta enplegu suntsiketari inolako frenorik jarri gabe. Orain zinturoia estutzeko esaten digute... lehenagotik beraiek hori egin balute, ez geundeko egoera honetan.
- **AUTONOMOAK.** Krisi honek; kontsumo jaitsieran eragiten du, merkataritza salmentetan igertzen da (negozioak itxi), gremio txikietan lana falta, garraiolaria kostu haundiekin...

LANAREN ETA ABERASTASUNAREN BANAKETAN OINARRITUTAKO GIZARTE EREDU BATERANTZ EGIN BEHAR DUGU.

APIRILAREN 27an 5etan MANIFESTAZIOA ERMUKO PLAZATIK

KOMITEAK

TENNECO, TVA, LARZEP, AMAYA TELLERIA, MECANICAS MALLABI, CCOO ETA LAB MICRODECO, LAB USA, WAT DIRECCIONES, DELEGADO SINDICAL INTEGRI, CCOO GES, TENNECO INNOVACION, CCOO CNC LAN, REPLATISA, LAB IDESA, CCOO IMIGAS, EGONDO, CGT-DEPRESA, DMETAL, CCOO DOMA, LAB OSAKIDETZA, AYUNTAMIENTO DE MALLABIA ETA AYUNTAMIENTO DE ERMUA.

BAT EGINAK

ASOCIACION DE COMERCIANTES Y HOTELEROS DE ERMUA, ASAMBLEA DE PARADOS Y PARADAS, ALTERMUATIVA, ASOCIACION CULTURAL IZAR GORRI, ERMUKO EMAKUMEEN ASANBLADA, EHK, ERMUKO-MALLABIKO BILDU, ERMUKO-MALLABIKO SORTU, GAZTE ASANBLADA, BETI TXARTO, IZQUIERDA UNIDA, KOMITE INTERNAZIONALISTA, ATENEO LIBERTARIO, STOP DESAHUCIOS BAJO DEBA, MALLABIKO ERNAI GAZTEAK, MALLABIKO PILOTA TALDEA, MALLABIKO FUTBITO TALDEA, JASOKUNDE ABESBATZA, MENDIBIL ABESBATZA, SALTZAILEA F.S.T., ASOCIACION SENEGALESA DE ERMUA, AeA, G.P.M. "EGUARBIZA", SAHARAUI HERRIAREN LAGUNAK ETA ONG URKO-PUNTA.